

I 2019ko apirila I



Apirilaren 11n, Orona Fundazioan, Arizmendiarreta Kristau Fundazioak antolatutako *Enpresen arteko lankidetzaren I foroan* parte hartu zuen Azaro Fundazioko zuzendaria den Ainhoa Arrizubietak.

Goierri Valley, Enpresarek eta Azaro Fundazioak Goierri, Bergara eta Lea-Artibai eskualdeetan martxan dauden enpresen arteko lankidetzaren proiektuen inguruan hitz egin zuten. Hauek izan ziren eztabaidagaiak: enpresa sustatzaile eta ETEn arteko lankidetzaren proiektuak; eskualdeko talentuen ihesa ekiditeko enpresa eta ikastetxeen artekoak; eta ETEn lehiakortasuna hobetzeko lankidetzaren proiektuak.

Aipagarria da elkarte horiek guztiak bat egin zutela lankidetzaren funtsaren aldagaiak adierazteko orduan; hala nola, lurraldearekin lotutako erronka komun baten inguruan ezarritako proiektua izatea, enpresek beraien ingurunearen garapenean duten konpromisoa, partaide bakoitzaren itxaropenak gauzatzeko dituen proiektua izatea, eta proiektu bateko hainbat partaide biltzen edo lotzen dituen erakunde katalizatzaile edo dinamizatzaile baten beharra.

Foroaren bigarren zatian, Ner Group, Fundacion Industrial Navarra eta Fundacion San Prudencio aritu ziren, beraien eremuko enpresei eskaintzen dizkien zerbitzuen inguruan.